

(2014ko apirila)

LURRA HIL ZORIAN DA. Kultura ekologikoaren alde.

"Hazkundeak mugak daukaz. Lurra hil zorian da", hots egin zan Erromako Klubean 1972an. Lurraren baliabideak (lehengaiak, energia-iturriak) mugatuak dira. Azken 400 urteetako paradigma izadiaren aurkako eraso eta harrapaketa sistematiko, planifikatu eta antolatua izan da, hari ahalik eta gehien aterateko gure mesederako. Aitatu dogun urtera arte sekula zalantzan jarri ez zan eredia.

Gaur egun "krisi ekologikoaz" hitz egiten dogu. Gizadiak gainean dauan arazorik larrienetakoa dan krisia. Izadia ustiatu izan dogu, agortezina dalakoan. Hari atzea emonda jokatzek kalte atzeraezinak ekarri ditu eta dakar mundu mailan. Kezkagarria da lehengaien gitxitzea, hondakinen arazoa, kutsaduraren gehitzea, basamortutzea, "aldaketa klimatikoa...". Gizakiak aurrekaririk bako eraldaketak eragin ditu Lurrean eta horreek aurreikusteko moduko eragin kaltegarriak dakar herri txirotuentzat, geroko belaunaldientzat eta gainerako izaki bizidun guztientzat. Arazo ekologikoa, beste ezer baino lehen, arazo antropologikoa da, gizakiaren bizitzaren joeran sustraitzen dalako.

Hazkunde ekonomikoa, garapen soziala eta ingurumenaren babesa ezin dira banaka hartu. Horreetako baten inguruan hartutako erabagiak besteak be nahastatzen ditu. Gizakiaren duintasunari nagusitasuna emonda, lurraren duintasuna autortzera heldu behar dogu. Gizakiaren duintasuna giza eskubideen iturria dan lez, lurraren, sortutako guztiaren, izadiaren duintasuna autortzeko eskubide ekologikoak sorrarazo behar ditu. Ezin dogu izadiaren balio instrumentala bakarrik autortu. Izadiak errespetatu egin behar doguzan arauak ditu.

irakurketa eta alkarrizketarako gida


1. Arduratzen ete gaitu "auzi ekologikoa" dalakoak? Eta bizikide doguzanak, arduratzen ete dira auzi horretaz? Gure mundua "governatzen" daben erakunde sozial, politiko eta ekonomikoak horretaz arduratzen ete dira? Aitatu daiguzan gertaera batzuk.



2. Gure ustez, posible ete da garapen "jasangarria"? Kristinau fedeak, Eleizaren Doktrina Sozialak, ba ete dakarsku barritasunik gure eta izadiaren arteko hartu-emona ulertzerakoan? Ba ete dau zerikusirik gutxietsienetara eta mespretxatuenen aldeko jardueragaz?



3. Zer egin daikegu bakarka, familia, gizarte eta eleiz mailan, izadiagaz gero eta erantzukizun handiagoz jokatzeko? Ze zeinu sartu eta gauzatu daikegu gure bizimoduan?





ELEIZAREN DOKTRINA SOZIALAREN IDAZKIAK

Octogesima Adveniens (OA)

Idazki apostolikoa *Rerum Novarum* entziklikaren 80. urteurrenean.
Paulo VI.a.

1971

21. Gizon eta emakumeen zerumuga aldatzen ari dan bitartean, eurentzat aukeratzen diran irudiak abiapuntutzat hartuta, beste aldaketa bat sentitzen da, giza jardueraren ondorio dramatiko eta ustebakoa. Zakartasunez, gizakia horretaz jaubetzen da; **izadiaren ustiaketa ardurabakoaren** eraginez, ha suntsitzeko arriskua dau eta, aldi berean, hondatze horren biktima izatekoa. Ingurune fisikoa ez da etenbako mehatxu bakarra: kutsadurak eta hondakinak, gaixotasun barriak, indar suntsizaille absolutua; gizakiak dagoeneko gizataldea bera be ez dau menperatzen eta, holan, jasanezina gertatu dakikeon ingurunea sortzen dihardu biharko. **Giza familia osoagan eragina dauan** egundoko gizarte arazoa.

Sollicitudo Rei Socialis (SRS)

Entziklika-idazkia *Populorum Progressio* idazkiaren 20. urteurrenean.
Joan Paulo II.a.

1987

34. Garapenaren izaera moralak ezin dau ageriko izadia eta grekoek, hain zuzen be bereizten dauan ordena aitatzuz, «**kosmosa**» deitzen ebena osatzen daben izakienganako errespetua alde batera itzi. Errealidade honeek be errespetua eskatzen dabe, arretaz hausnartzea merezi dauan eretxi hirukotxaren arabera.

Lehenengoa, izakien kategoria desbardinak bizidunak ala bizibakoak –animaliak, landareak, elementu naturalak- ezin dirala ardura eta zigor barik, norberari ondoen jatorkon lez, norbere nahiera eta eskakizun ekonomikoen arabera erabili jaubetzean datza. Alderantziz, izaki bakotxaren izatasuna eta izaki guztiek sistema antolatuan, hau da, hain zuzen be, kosmosean, alkarregaz daben loturea kontuan hartzea komeni da.

Bigarren eretxia, ostera, uste sendo batean oinarritzen da: **baliabide naturalak mugatuak** dirala eta batzuk, gainera, ez dirala, barriztagarriak. Agortezinak balitzaz lez, erabateko nagusitasunez erabili ezkerro, gero, beharbada, ez oraingo belaunaldiak ez atzean datozeanek be, ezingo dabez eskuragarri izan.

Hirugarren eretxia, **dalako garapen jakin batek inguru industrializatueta bizi-kalidatean izan daikezan ondorioen** ingurukoa da. Jakin badakigu industrializazioaren emaitza zuzen ala zeharkakoa ingurunearen kutsadura dala gero eta gehiago, eta horrek ondorio benetan larriak dituala herritarren osasunerako.

Beste behin be, bistakoa da garapena, zuzentzen dauan plangintza-borondatea, baliabideen erabilera eta erabilteko erea ez dagozala eskakizun moralak errespetatzeetik libre. Eskakizun moral horreetako batek mugak jarten deutzaz zalantza barik ageriko izadiaren erabilerari. Kreatzaileak gizakiaren ardurapean itzi eban nagusitasuna **ez da botere absolutua**, eta ezin da «erabilteko eta gehiegi erabilteko» askatasunaz edo gauzak neuri iruditzen jatan lez kudeatzeaz hitz egin.





Centesimus Annus (CA)

Entziklika-idazkia *Rerum Novarum* idazkiaren mendeurrenean. Joan Paulo II.a.

1991

37. Kontsumismoaren arazoagaz batera, eta honi estu lotuta, kezkarria da, era berean, auzi ekologikoa. Gizakiak, izateko eta hazteko nahiak ez ezik, eukiteko eta gozatzeko nahiak bultzatuta, **larregi eta kontrol eta ordena barik kontsumitzen ditu** lurreko baliabideak eta bere bizia bera. Ingurune naturalaren suntsiketa burubako honen sustraian akats antropologikoa dago, zoritxarrez gure sasoiari guztiz hedatuta dagoana. Gizakiak eraldatzeko eta, nolabait esateko, lanagaz mundua «sortzeko» dauan gaitasunaz jaubetzen da baina hori lehenengo, jatorrian, Jaungoikoak gauzak emoten deuskuzalako gertatzen dala ahaztu egiten dau. Lurra edozein modutan erabili daikela uste dau, erreparo barik bere borondatearen arabera menperatuz, lurra aurretik Jaungoikoak emondako berariazko fisonomiarik eta xederik izango ez baleu lez. Izan be, gizakiak hori garatu egin daike baina inoiz ez traizionatu. Kreazinoan Jaungoikoaren laguntzaile izateari uko egin eta Jaungoikoaren lekua hartu gura dau eta jarrera horregaz berak gobernatu ez ezik tiranizatu egiten dauan izadiaren matxinada eragiten dau.

Honek, batez be, gizakiaren zekenkeria eta hertsikeria erakusten dau, bere sustagarria gauzak eukitea eta horreen jaube izatea dalako eta ez egiagaz lotzea, eta **ageriko gauzetan eurok sortu izan dituan Jaungoiko ikusezinenaren mezua irakurtea ahalbideratzen deusan izakiaganako eta edertasunaganako harriduratik sortutako jarrera eskuzabala, doakoa, estetiko falta daualako**. Honen haritik, gaurko gizakiak geroko belaunaldiak dituan betebeharrak eta zereginak kontuan izan behar ditu.

Mezua Bakearen Munduko XLI. Jardunaldirako. Benedikto XVI.a.

2008

8. Funtsezkoa da lurra «**guztion etxe**» lez «sentitzea» eta, guztion zerbitzura jarteko, alde bateko erabagiak hartu ordez alkarrizketaren bideari ekitea. Beharrezkoa izan ezkerro, esparru instituzionalak gehitu daitekez maila internazionalen gure «etxe» honen gobernuari alkarregaz aurre egiteko; halan da be, baliagarriena zera da: alkarlanean arduratsu jardutea ezinbestekoa daneko uste sendoa kontzientzietan umatzea lortzea. Zerumugan agertzen diran arazoak konplexuak dira eta **denporea arin doa**. Egoerari eraginkortasunez aurre egiteko nahitaezkoa da alkar hartuta jokatzeko. Badago arlo bat non bereziki beharrezkoa dan Nazinoen arteko alkarrizketea areagotzea: planetako baliabide energetikoen kudeaketan, hain zuzen be. Honen haritik, premina nagusi bi agertzen jakez teknologia arloan aurreratuta dagozan herrialdeei: alde batetik, indarrean dagoan garapen-ereduak eragiten dituan **egundoko kontsumo-mailak aztertu egin behar dira** eta, bestetik, alde aurretik prestatu behar dira inbertsino egokiak energia-iturriak dibertsifikatzeko eta energia-eraginkortasuna hobetzeko. Azaleratzen diharduen herrialdeak energia-gose dira, baina batzuetan gose hori herrialde txiroen kontura aseten da, honeek, azpiegitura eta teknologiarik jakokonez gabezia dagozanez, **euren baliabide energetikoak merkeei saltzera derrigortzen dabezalarik**. Batzuetan, euren askatasun politikoa be zalantzan jarten da argi eta garbi iraingarriak diran protektoratua edo, edozelan be, baldintzapenak edo murriztapenak ezarriz.

Evangelii Gaudium (EG)

Ebanjelioaren iragarpena gaurko munduan burubide apostolikoa. Frantzisko.

2013

215. Beste izaki hauskor eta babesbako batzuk dagoz, askotan interes ekonomikoen edo berezi bako erabileraren menpe geratzen diranak. Kreazino osoaz dihardut. Gizakiok ez gara gainerako kreaturen onuradun hutsak, jagoleak baino. Gorpuzdunak garanez, Jaungoikoak hain estu lotu gaitu gure inguruko munduagaz non lurzoruaren basamortutzea gaixotasunaren antzekoa dan gutako baxotxarentzat, eta espezie baten galtzea geuri egindako ebaketa lez deitoratu daikeregun. **Ez daigun onargarriztat jo gure atzean geure bizitzan eta gure osteko belaunaldien bizitzan eragina izango aben suntsipenaren eta heriotzaren arrastoak iztea.**



OTOIZ EGITEKO

(Has 1, 1. 26-31)

“Hasieran, Jaungoikoak zeru-lurra egin ebazan. Lurra nahas-mahas hutsa zan: leize handiaren gain ilunpea. Jaungoikoaren arnasa uren gainean ebilen... Jaungoikoak esan eban: Egin daigun gizakia; izan bedi gure irudiko, gure antzeko; menderatu daizala itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak, abereak, basapiztiak eta lurtean narraska dabilzan piztia guztiak. Jaungoikoak, beraz, bere antzeko egin eban gizakia, Jaungoikoaren beraren irudira egin eban; ar eta eme egin ebazan. Eta bedeinkatu egin ebazan, esanez: Sortu eizuek umeak eta ugaldtu, bete lurra eta izan haren nagusi; menderatu eizuek itsasoko arrainak, zeruko hegaztiak eta lurtean narraska dabilzan piztia guztiak. Jaungoikoak esan eutsen: Hara, zeuei emoten deusuedaz lurrazalean diran hazidun landara guztiak eta hazidun fruta-arbola guztiak; horreek izango dozuek janari. Abere, zeruko hegazti eta lurtean narraska dabilzan bizidun guztiei, barriz, bedar hezea emoten deutset janari. Eta halan izan zan. Eta egin eban guztia oso ona zala ikusi eban Jaungoikoak”.

KREATUREN KANTIKA ASISKO SAN FRANTZISKO

— *Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona, zeureak gorespenak, aintza, ohorea eta bedeinkapen dana. Zuri, Goi-goiko horri, jagotzu bakarrik, eta ez da gizakirik zu aitatzeko duin danik.*

* *Goretsia zu, ene Jauna, zeure sorkari guztiakaz, batez be anaia eguzki jaunagaz: bera da egun-argia eta beragaz deuskuzu egiten argi. Eder eta distiratsu da dirdira bizian: zure, Goi-goiko horren, irudi da.*

— *Goretsia zu, ene Jauna, arreba ilargi eta izarrengaitik: argi, bitxi eta eder dozuz zeruan jarri.*

* *Goretsia zu, ene Jauna, anaia haizearengaitik, eta aire, laino, oskarbi eta edozein eguraldigaitik: beronen bidez emoten deutsezu mantenua zeure sorkariei.*

— *Goretsia zu, ene Jauna, arreba urarengaitik: txit ongarri da, apal, bitxi eta garbi.*

* *Goretsia zu, ene Jauna, anaia suarengaitik: beronen bidez argitzen dozu gaua eta ederra da, alaia, sendoa eta indartsua.*

— *Goretsia zu, ene Jauna, gure arreba ama-lurragaitik: berak gaitu mantentzen eta gobernatzan, eta hainbat frutu, lora koloretzu eta bedar sorrarazoten.*

* *Goretsia zu, ene Jauna, zure amodioz dabenengaitik parkatzen eta gaixotasuna eta larrialdia eroaten: zorionekoak bakean sufritzen dabezanak, zuk, Goi-goiko horrek, koroatuko dozuz eta.*

— *Goretsia zu, ene Jauna...*

EKOLOGIAREN ZORIONTASUNAK

- Zorionekoak ama Lurra bihotz-bihotzez maite dabenak eta samurtasunez zaintzen dabenak, jakin badakielako baliabide mugatuak dituana, eta danok lagundu daikguna horreek birsortzen.

— Zorionekoak eguneroko bizitzan birziklatzen, berrerabilten eta, aldi berean, proposatzen jaken guztia erostera bultzatzen dituan propaganda baztertzen dabenak.

- Zorionekoak gizakiak, animaliak, landarak, errekak, itsasoak... bardintzat jotzen dabezanak eta norberekeriaz erabilten ez dabezanak.

— Zorionekoak ezkortasuna gainditu eta alkarrizketaren, bilatzearen eta ahalegin sortzailearen bidez arazo ekologikoei konponbidea aurkitzen deusienak.

- Zorionekoak bizimodu soila bizitzea jakituriaz jokatzera dala ulertu dabenak.

— Zorionekoak euren zeinuez, detailez, berbez eta irribarreak ingurua edertzen dabenak, jokaera horregaz adiskidetasun, konfiantza eta poztasunaren ereile izango diralako.

- Zorionekoak ekologia sano eta benetakoa bizitzeko, alkartasuna eta adiskidetasuna, edertasuna eta doakotasuna, mundua hobetzeko lana eta euren bizitzetan haragitutako mistika buztartzen dabezalako.

— Zorionekoak txiki, behartsu eta baztertuenen eretxiek harrizten eta interpelatzen dabezanak, seguruenik eurek eskainiko deusiezalako urtenbiderik onenak ekologia eta giza arloetan bizi dogun krisiaren aurrean.